

## SARRERA

Jarraibide hauen helburua da argitzea administrazioak nola informatu eta jokatu beharko duen interesdunen aurrean, hauen datuak kontsultatu ahal izateko – interesdunek datuok aurkeztu behar izan gabe– bere espedienteen tramitazioan. Hala, irizpideak argitu eta bateratzen dira eta, halaber, baimenak segurtatzen dira datuak komunikatzen edo lagatzen dituzten administrazioen aurrean.

Puntu hauek jorratuko dira:

1. Araubide juridikoa: aipatzen diren eta dokumentua oinarritzen duten arau guztiak, eta dagozkien estekak.
2. Araudi erregulatzailerak: zertzuk testu sartu behar diren
3. Formularioak: nola antolatu kontsultarako gaikuntza
4. Datuen minimizazioa
5. Araubide juridikoa: Araudi aplikagarria
6. I. eranskina: Tributazio-datuak
7. II. eranskina: Laguntzak, bekak eta dirulaguntzak

## 1. ARAUBIDE JURIDIKOA

- [2016/679 \(EB\) ERREGELAMENDUA, EUROPAKO PARLAMENTUAREN ETA KONTSEILUARENA, 2016ko apirilaren 27koa, zeinak hizpide baitu pertsona fisikoak babestea datu pertsonalen tratamenduari eta datuon zirkulazio askeari dagokienez eta zeinaren bidez derogatzen baita 95/46/EE Zuzentaraua \(2016/679 \(EB\) Erregelamendua, datuen babesari buruzkoa\)](#)
- [3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa. \(LOPDGDD\)](#)
- [LOPDGDDren azken xedapenetako zortzigarrena eta hamabigarrena aplikatzeko orientabideak \(esp.\)](#)
- [AEPDren txosten juridikoa \(175-2018\) \(esp.\)](#)
- [39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena.](#)
- [40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena.](#)
- [2/2005 FORU-ARAU, martxoaren 10ekoa, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzkoa \(ZFAO\)](#)

## 2. ARAUDI ERREGULATZAILEA

### 2.1) ARAUDIAN SARTZEKO DEN INFORMAZIO-TESTUA



Komenigarria da **araudi erregulatzailean argibide-testu** bat sartzea, non interesdunei jakinarazten baitzaie Zerbitzuek badituztela baliabide batzuk administrazioen arteko datu-bitartekotzarako plataformetako datuak egiaztatu eta kontsultatzeko, eta, ondorioz, administrazioen esku dauden datuak ez emateko eskubidea gauzatu daitekeela. Hona adibide bat (gehitutako kako zuzenen artean, bestelako aukerak edo aldatu beharreko datuak daude):

#### Administrazio Publikoen esku dauden datuak:

*[XXX entitateak] edo [Bizkaiko Foru Aldundiko organo kudeatzaileak], eskura dauden datu-bitartekotzarako sistemak [edo BIZKAIA NODOA] baliatuz, behar beste konprobazio eta kontsulta egingo ditu Administrazioek interesdunei buruz dituzten datuen inguruan, bai eta [XXXXXXXXren (adb.: Udalekuen)] tramitazio administratiboa egiteko behar den beste zeinahi ere.*

*Administrazio Publikoen arteko datu-bitartekotzarako oinarria arau hauetan zehazten da: 2016/679 (EB) Erregelamendua, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluarena, 2016ko apirilaren 27koa, pertsona fisikoen babesari buruzkoa, 6. artikulua, eta 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, 28. artikulua, non herritarrei eskubidea aitortzen baitzaie dokumentaziorik ez aurkezteko baldin eta Administrazio jarduleak hura badu honezkero edo beste edozein Administraziok elaboratu badu[, baina gainerako legeria aplikagarria ere]. Horregatik, bada, **utziko zaio interoperableak izan daitezkeen datuak biltzen dituzten dokumentu edo ziurtagiriak eskatzeari, non eta interesduna [edo haren ordezkaria] ez zaion oposatzen horiek erabiltzeari.** Hala izatera, dagozkion datuak edo dokumentuak aurkeztu beharko ditu.*

*Arrazoi teknikoak direla bide interoperabilitatea ezinezkoa balitz, [organo kudeatzaileak] eskatu ahal izango ditu izapideak egiteko behar diren datuak edo dokumentuak.*

*[Era berean, Administrazioek kolaboratzeko betebeharra dute, hala xedatzen baita 40/2015 Legearen 155. artikuluan, datu-trukearen ingurunean, eta herritarrei buruz dituzten datuak eman behar dituzte.]*

### 2.2) ESKAERA EGITEKO BEHAR DIREN DATUAK ARAUDIAN SARTZEA (nahitaezkoa)



Eskatzen diren datuek izan behar dute **egokiak, beharrezkoak** eta ezinbestekoaren neurriira **mugatuak** (2016/679 (EB) Erregelamendua, Datuen Babesari buruzkoa, 5.1.c artikulua), **datuen minimizazioaren printzipioarekin bat.**

Halaber, «administrazio publikoek ez diete interesdunei galdatuko aplikatzekoa den araudiak eskatzen ez duen datu edo dokumenturik» ([39/2015 Legea, Administrazio Prozedura Erkidearena, 28.3. artikulua](#))

Horrenbestez, araudiaren oinarrietan adierazi beharko da zein den interoperatu beharreko informazioa. **Ez da informaziorik lagako, non ez dagoen espresuki jasota** baimena eskatzen duen prozeduraren **araudi erregulatuzailean**.

- **1. adibidea:**



**2. oinarria.- Parte-hartzaileak**

*Udako «Udalekuak 2018» kanpainan parte hartu ahal izango dute 2005etik 2011ra bitartean jaiotako guztiek, bi urteok barne, baldin eta Foru Dekretua hau argitaratzen den egunean erroldatuta badaude Bizkaiko Lurralde Historikoko edozein udalerritan.*

**Zein interoperabilitate-zerbitzuri eskatu ahalko zaion baimena eta lagako zaizkion datuak: Banakako Erroldaren Zerbitzua eta Identitate Datuak Kontsultatzeko Zerbitzua, jaioteguna barne dela.**

- **2. adibidea:**



*17. artikulua.– Bizikidetzeta-/Familia-unitatearen errenta kalkulatzeko.*

*1.– Bizikidetzeta-/Familia-unitatearen errenta lortzeko, artikulu hau aplikatuz kalkulaturako errenta gehituko zaio 14. eta 15. artikuluen arabera konputagarri diren familia-unitateko kideetako bakoitzari.*

*2.– Bekarako, honela kalkulatu da PFEZ aitortpena aurkeztu duten kide konputagarrien errenta:*

*a) 2018ko ekitaldiko PFEZ aitortpenetik hartuko dira zerga-oinarri orokorrari dagozkion zenbatekoak eta aurrezkiaren zerga-oinarria, eta batu egingo dira. Baldin zerga-oinarri orokorrak, partez nahiz osoan, jarduera ekonomikoen etekinak baditu, eta etekinok ikur negatiboa badute, zero balioaz konputatuko dute. Hortik ateratako zenbatekoari kuota likidoa kenduko zaio. [...]*

**Zein interoperabilitate-zerbitzuri eskatu ahalko zaion baimena eta lagako zaizkion datuak: Ahalmen Ekonomikoko Zerbitzua (PFEZ).**

- **3. adibidea:**



*Nolanahi ere, [XXX Foru Sailak / XXXX entitateak] eskatu ahal izango du zenbat ere informazio osagarri jotzen baitu beharrezkotzat aurkeztutako eskabideak behar bezala ulertu eta ebaluatzeko.*

- **OHARRA: Ez da beharrezkoa interoperabilitate-zerbitzu espezifikoak aipatzea** Araudian; espezifikatu beharko da interesdunek zer eskakizun bete beharko duten, hauek behar ditugun datuak izango direlarik. Araudian interoperabilitate-zerbitzu espezifikoak sartzen baditugu, gerta liteke bariazioa egotea edo beste batzuk sortzea, eta guk haiek ezin erabiltzea.

### 2.3) EZ ESKATU ELEKTRONIKOKI BIL DAITEZKEEN DATUEN DOKUMENTU EDO ZIURTAGIRIRIK



Araudi erregulatzaillean eta eskaera-formularioetan, adierazi beharko da zer interoperatuko den. Era berean, **ez dira eskatu beharko, interesdunek aurkeztu beharreko dokumentazioaren barruan, interoperatuko diren datuak**. Egikari hori baimenak emateko orduan berrikusiko da, eta mugak ezarri ahalko dira baldin eta, interoperatzerakoan, araudi edo formularioek informazio hori exigitzen badute.

Puntu hori bat dator Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 28.2 artikularekin eta Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arauaren 94.2 artikularekin (ikus I. eranskina: Tributazio-datuak).

Hortaz, **formularioetan, izan paperezko nahiz elektronikoko, kanpoan utziko da interoperabilitate-zerbitzuetan eskatzen diren datuak aurkezteko beharra.**

- **1. adibidea:** Errolda berrikusteko baimena eskatzea.

Oinarri erregulatzailak:

Onuradunen betekizunak

*-Bizkaiko Lurralde Historikoan erroldatuta egon beharko da*

[...]

Eskabide eta formularioak

*Bizkaiko Foru Aldundiko [organo kudeatzaileak], datu-bitartekotzarako baliabideak [edo BIZKAIA NODOA] baliatuz, berrikusiko du interesdunak Bizkaiko Lurralde Historikoan erroldatuta daudela, non eta espresuki oposatzen ez zaren (hala izatera, dokumentazioa aurkeztu beharko duzu).*

[...]



**OHARRA:** Ikus «Formularioak» puntua informazio gehiagorako

- **2. adibidea:** Kasuan-kasuko ogasunaren errenta-mailaren datuak trukatzeko honako prozedura honen baimen-eskaerak EZINGO DU eskatu «PFEZaren fotokopia» bere formularioan:

*Dokumentazio hau aurkeztu beharko duzu, lehen aipatutakoaz gainera, baldin mailegua eta/edo dirulaguntza ere eskatzen baduzu:*

- *Birgaikuntzaren titularren diru-sarreraren ziurtagiriak:*
  - *PFEZ aitortpena egiteko betebeharra baduzu, edo eginda badaukazu, dokumentazio hau aurkeztu beharko duzu:*  
*Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitortpen(ar)en fotokopia(k)*  
*eta Foru Ogasunean, kutxan edo bankuan aurkeztu d(ir)ela ziurtatzen duen zigilua, eskabide hau aurkezteko unean amaitutako azken ekitaldiari dago(z)kiona(k).*



- **3. adibidea:** Poliziaren Zuzendaritza Nagusiarekin NAN, IFZ edo pasaportearen datuak trukatzeko honako prozedura honen baimen-eskaerak EZINGO DU eskatu NAN agiria bere formularioan:



	DOCUMENTOS A APORTAR CON LA SOLICITUD	QUIÉN DEBE PRESENTAR	DÓNDE OBTENERLO
<input type="checkbox"/>	DNI*, NIE o Pasaporte. *Todos los mayores de 14 años deben presentar obligatoriamente DNI.	Todos los miembros de la UC.	Comisarias y Consulados.



*\*OHARRA: Kasu espezifiko honetan, Bizkaiko Foru Aldundian, era elektronikoan egindako aurkezpenek automatikoki berresten dute identitatea herritarrekiko harremanen datu-basearen kontra, eta beraz **ez da identitaterik kontsultatu beharko bide elektronikoz erregistratutako eskabideen kasuan.***

## 3. FORMULARIOAK (ESKABIDEAK ETA BESTELAKOAK)

### 3.1) EZ ESKATU ELEKTRONIKOKI BIL DAITEZKEEN DATUAK DITUEN DOKUMENTURIK

Araudi erregulatzailearen 3. puntuko irizpide berak hartuko dira kontuan: **formularioetan, izan paperezko nahiz elektroniko, kanpoan utziko da interoperabilitate-zerbitzuetan eskatzen diren datuak aurkezteko beharra.**

### 3.2) ESKAERA EGOKITZEA DATUEN BABESERA

#### INTEROPERABILITATERAKO LEGITIMAZIO-OINARRIEN LABURPENA

Lehenik eta behin, jakinarazi behar da [Datuen Babesari buruzko 2016/679 \(EB\) Erregelamenduaren Europako araudiak](#) ezarritako hau:



**Kontsentimendua ez da, erabat hartuta, oinarri juridiko balioduna** Administrazio Publikoaren datu-tratamendurako, zeren desoreka nabarmena baitago interesdunaren eta tratamendu-arduradunaren (Administrazioaren) artean, eta, beraz, ez dago ziurtatuta kontsentimendua libreki eman dela, Datuen Babesari buruzko 2016/679 (EB) Erregelamenduak eskatzen duen bezala (kontuan hartzekoen ataleko 42. eta 43. puntuak).

Hala, **Administrazio Publikoaren datu-tratamenduaren oinarri juridikoak bi dira** (Datuen Babesari buruzko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 6. art.):

- c) tratamendua beharrezkoa da tratamenduaren arduradunari aplikagarria zaion **lege-eginbeharra** betetzeko (horren baliokidea: LOPDGDD 8.1 art.)
- e) tratamendua beharrezkoa da **interes publikoaren izenean** edo tratamenduaren arduradunari emandako **botere publikoen izenean** burututako eginkizun bat betetzeko (horren baliokidea: LOPDGDD 8.2 art.)

Hortaz, **lege berezi aplikagarri batek kontsentimendu espresua errekeritzen duen kasuetan soilik** ordeztuko lituzke Erregelamenduaren 7. artikuluan exigitzen diren baldintzetan emandako kontsentimendu batek bi oinarri juridikook (lege-eginbehar bat betetzea (c) eta interes publikoaren izenean edo botere publikoen izenean burututako eginkizun bat betetzea (e)). Esate baterako, tributazio-datuen kasuan edo datu berezien kategoria batzuen kasuan.

Gaineratzekoa da ezen delako **kontsentimendua orobat izango dela balioduna Administrazioaren eta interesdunaren arteko oreka dagoen kasuetan.**

### 3 GAIKUNTZA-MOTAK

Era horretan, zer informazio-zerbitzu eskatzen den eta zer prozeduratarako errekeritzen den, **hiru gaikuntza-mota egon daitezke:**

- **Oposiziorik ez**
- **Legea**
- **Kontsentimendua.**

#### Oposiziorik ez

---

- **GAIKUNTZA:** Legitimatuta gelditzen da **interes publikoaren izenean edo emandako botere publikoen izenean burututako eginkizun bat betetzearekin**, Datuen Babesari buruzko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 6.1.e artikuluan aurreikusitako terminoetan.
- **PROZEDURA-MOTA:** Arau orokor gisa, gaikuntza izan beharko du horrek
- **Nola SARTU FORMULARIOAN?**
  1. **Testu-eredua:** interesduna kontsultari buruz informatzeko eta honi oposatzeko aukera emateko:

*Bizkaiko Foru Aldundiko [organo kudeatzaileak] [edo XXX entitateak], eskura dauden datu-bitartekotzarako sistemak [edo BIZKAIA NODOA] baliatuz, behar beste konprobazio eta kontsulta egingo ditu Administrazioek interesdunei buruz dituzten datuen inguruan, non eta espresuki oposatzen ez zaren (hala izatera, dokumentazioa aurkeztu beharko duzu).*

*OHARRA: Datu pertsonalen tratamendua legitimatuta gelditzen da interes publikoaren izenean edo [organo kudeatzaileari] emandako botere publikoen izenean burututako eginkizun bat betetzearekin, jarraibide harturik 6.1.e artikuluan aurreikusten duena 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluarenak, eta [legeria aplikagarria](#)\*.*

**\*OHARRA:** Gomendatzen da «legeria aplikagarria» delakoak esteka bat izatea beste web batera joateko, non osorik aipatzen baitira araudiaren xehetasuna eta testua. Adibidez: DBEO 6. artikulua, LOPDGDD 8. artikulua, 39/2015 Legearen 28. artikulua...

## 2. Adibidea:

### Formulario Solicitud del Procedimiento CAMPAÑA DE VERANO, Udalekuak 2020

1 Solicitud   2 Seleccionar medio de notificaciones   3 Adjuntar documentación   4 Envío

#### Documentación a aportar

Documento	Adjuntar
Ficha personal (Udalekuak)* Udalekuak_1.rtf	

#### Documentación verificable

*Bizkaiko Foru Aldundiko [organo kudeatzaileak], eskura dauden datu-bitartekotzarako sistemak [edo BIZKAIA NODOA] baliatuz, behar beste konprobazio eta kontsulta egingo ditu Administrazioek interesdunei buruz dituzten datuen inguruan, non eta espresuki oposatzen ez zaren (hala izatera, dokumentazioa aurkeztu beharko duzu).*

<input type="checkbox"/> Me opongo	Documento	Adjuntar
<input type="checkbox"/>	Certificado de empadronamiento	
<input type="checkbox"/>	Certificado de nacimiento	
<input type="checkbox"/>	Acreditación del grado de discapacidad	
<input type="checkbox"/>	Acreditación del grado de dependencia	
<input type="checkbox"/>	Título/Tarjeta de Familia Numerosa	
<input type="checkbox"/>	Certificado de percibir la RGI-Renta de Garantía de Ingresos	

**Guardar borrador**   **Anterior**   **Siguiente**

**OHARRA:** Datu pertsonalen tratamendua legitimatuta gelditzen da interes publikoaren izenean edo [organo kudeatzaileari] emandako botere publikoen izenean burututako eginkizun bat betetzearekin, jarraibide harturik 6.1.e artikuluan aurreikusten duena 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluarenak, eta [legeria aplikagarria](#).

Interesatuak bere egoera pertsonaletik eratorritako arrazoi konkreturik balu datuen kontsultari oposatzera eraman lezakeenik, gelaxka hau kargatuko litzateke, arrazoi horiek alega litzan:



<input type="checkbox"/>	Documento	Aktibatu behar da	Adjuntar
<input checked="" type="checkbox"/>	Certificado de empadronamiento		
Nire datuen kontsultari oposatzen natzaio, arrazoi hauek alegatzen ditudalarik:			
<input type="text"/>			
<input type="checkbox"/>	Certificado de nacimiento		
<input type="checkbox"/>	Acreditación del grado de discapacidad		
<input type="checkbox"/>	Acreditación del grado de dependencia		
<input type="checkbox"/>	Título/Tarjeta de Familia Numerosa		
<input type="checkbox"/>	Certificado de percibir la RGI-Renta de Garantía de Ingresos		
<input type="button" value="Guardar borrador"/>		<input type="button" value="Anterior"/>	<input type="button" value="Sigüente"/>

**\*OHARRA: Datuak Babesteko Espainiako Agentziaren testua:** 39/2015 Legearen 28. artikuluko 2. eta 3. apartatuetan aipatzen den oposizio-eskubidea honela ulertu behar da: Datuen Babesari buruzko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 21. artikuluaekin bat, herritarrak eskubidea du une orotan oposatzeko, egoera partikularrekin zerikusia duten arrazoiengatik, berari doazkion datu pertsonalen tratamenduari, baldin eta hau 6. artikuluko 1. apartatuaren e) edo f) letretan xedatutakoaren arabera egiten bada, bai eta profilak sortzeari ere, xedapen horiek oinarri hartuta. Nolanahi ere, oposatzeko eskubidea gauzatzeari oposizioaren arrazoiaren adierazpenak lagundu behar dio, arduradunak hala hazta ditzan alegatu diren motiboak, eta ez du balio oposizioa termino absolutuetan egiteak, zeren uler bailiteke eman ez den kontsentimendu baten errebokaziotzat, eta kontsentimendua ez da tratamenduaren oinarri juridikoa.

Gainera, herritarrak, oposizio arazoitua aurkeztuz gero, harekin batera nahitaez aurkeztu beharko ditu zein dokumenturen kontsultari oposatzen zaion, eta horiexek, administrazio jarduleak hala jakin ahal izan dezan betetzen direla delako prozeduran ezarritako betekizunak, zeren, bestela, eskaera ezingo baita onartu.

**\*OHARRA: Egiaztatzeko ahala-** Nolanahi ere, Administrazio jarduleak ahalmena du deklaraturako datu pertsonalen zehaztasuna egiaztatu eta konprobatzeko, LOPDGDD 8. xedapen gehigarriekin bat: *Edozein bide erabiliz eskaerak egin, eta interesdunek administrazio publikoen eskuetan dauden datu pertsonalak ematen badituzte, eskaeraren hartzailea den organoak beharrezko egiaztatze-lanak egiteko aukera izango du, dituen eskumenen barruan, datuak benetakoak direla egiaztatzeko».*

**Alegia, Administrazio jarduleak ahalmena izango du aurkeztutako datuaren zehaztasuna egiaztatu eta konprobatzeko, baita interesdunak oposizio-eskubidea erabili duenean ere.**



## Legea

- **GAIKUNTZA:** Lege-eginbehar bat betetzea (Datuen Babesari buruzko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 6.1.c artikulua), Administrazio Prozesura Erkidearen 39/2015 Legea (28.2 artikulua), LOPDGDD (8. art. eta 8. xedapen gehigarria).
- **PROZEDURA-MOTA:** Haiek zeinetan ahal zehatzaileak eta ikuskatzaileak erabiltzen baitira (Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 28.2 artikuluekin bat) eta hala determinatutako beste batzuk.
- **Nola SARTU FORMULARIOAN?**
  1. Inguruabar horren berri jakinaraziko zaio eskatzaileari, eta espresuki adieraziko dira **bai kontsultagai den informazio zehatza, bai baimen beharrik eta oposizio-aukerarik gabe kontsultatzeko gaikuntza ematen duen Legea.**

### 2. Testu-eredua:

*Bizkaiko Foru Aldundiko [organo kudeatzaileak] behar beste konprobazio eta kontsulta egingo ditu Administrazioek interesdunei buruz dituzten datuen inguruan, hala bete dadin lege-eginbehar bat, jarraibide harturik Datuen Babesari buruzko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 6.1.c artikulua. [xxxxx] Legeak, [xxx] artikuluan, gaikuntza ematen du [datu zehatza] kontsultatzeko.*

3. **Adibidez:** Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean edukitzea dirulaguntza, beka, sari edo prestazioen inguruko prozeduretan.

- **Dirulaguntzak eta laguntzak**

*Bizkaiko Foru Aldundiko [organo kudeatzaileak] behar beste konprobazio eta kontsulta egingo ditu Administrazioek interesdunei buruz dituzten datuen inguruan, hala bete dadin lege-eginbehar bat, jarraibide harturik Datuen Babesari buruzko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 6.1.c artikulua. Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arauak gaitzen ditu kontsulta horiek, 94.1.c artikuluan, iruzurraren kontrako borrokarekin elkarlanean.*

- **Prozedura zehatzaileak edo ikuskatzaileak**

*Bizkaiko Foru Aldundiko [organo kudeatzaileak] behar beste konprobazio eta kontsulta egingo ditu Administrazioek interesdunei buruz dituzten datuen inguruan, hala bete dadin lege-eginbehar bat, jarraibide harturik Datuen Babesari buruzko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 6.1.c artikulua. Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legeak gaitzen ditu kontsulta horiek, 28.2 artikuluan, zeinean ezartzen baita prozedura zehatzaile edo ikuskatzaileetan interesduna ezingo zaiola oposatu datuen kontsultari.*

## Onarpena

- **GAIKUNTZA:** Kontsentimendua (Datuen Babesari buruzko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 6.1.a artikulua).
- **DATU-MOTAK:**
  - Nahiz eta **kontsentimendua oro har EZ den oinarri juridiko balioduna** administrazioaren begietan, gure ordenamendu juridikoko lege batzuek oraindik exigitzen dute interesdunaren **kontsentimendu espresua** datu-mota jakin batzuk eskaintzen dituzten zerbitzuak erabili ahal izateko, hala nola tributazio-datuak edo datu berezien zenbait kategoria.
  - Gauza bera gerta daiteke, orobat, administrazioak tratamenduok egiteko ahalik ez dituen kasuetan; halakoetan, kontsentimendua jaso beharko du. Kasu horretan, kontsideratzen da **oreka dagoela Administrazioaren eta interesdunaren artean.**
- Nola SARTU FORMULARIOAN?
  1. Adierazi kontsultagai den **informazio zehatza.**
  2. Adierazi **kontsentimendua exigitzen duen legea: DBEO, LOPD, 39/2015 Legea, ZFAO eta kasu bakoitzean aplikagarri diren gainerakoak.**
  3. Gehitu kontsentimendu-ekintza dudagabea eskatzeko behar den mekanismoa: markatu beharreko gelaxka; lehenespenez, ez da markatuta egongo.
  4. **Testu-eredua:** Ez dago. Kasu jakin bakoitzeko idatzi beharko da.
  5. Kontsentimendua **jaso beharko da, Datuen Babesari buruzko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 7. artikuluari jarraikiz.**
  6. **Adibideak:**

Onartzen dut nire tributazio-datuak prozedura hau izapidetzeko erabil daitezela, oinarri harturik Zergei buruzko 2/2005 Foru Arauaren 94.1.l) artikulua.

Onartzen dut aurtengo Udalekuak 2020 kanpainan zehar nire alaba edo semeari egiten dizkioten argazkiak, egiten badizkiote, erabil daitezela webgunean argitaratzeko edo Udalekuak 2021 kanpainaren zabalkundera egiteko.

## DATUEN MINIMIZAZIOA

Datuen minimizazioaren printzipioa betetzeari begira, zeina ezartzen baitu Datuen Babesari buruzko 2016/679 (EB) Erregelamenduak, tratatuko diren datu pertsonalak «egokiak, beharrezkoak eta ezinbestekoaren neurria mugatuak izango dira».

Zentzu horretan, lagatzaileen eskutik jasotako datuen tratamenduaren arduradun (edo, hala dagokionean, eragile) bihurtzen dira lagapen-hartzaileak, eta behar-beharrezkoak diren datuak baino ez dituzte erabiltzen beren prozedurak tramitatzeke.

## ELKARRERAGINGARRITASUNA EZARTZEKO IRIZPIDEAK

---

Datuen erabilera hori muga liteke, horretarako erabiltzen direlarik entitate lagapen-hartzaileek behar dituzten datuak bakarrik bueltatzen dituzten aplikazioak.

## I. ERANSKINA: TRIBUTAZIO-DATUAK

- ARAU OROKORRA: Tributazio-datuak isilpekoak dira. Bizkaiko Lurralde Historikoko ZFAOK honela dio:

**94. artikulua. Zerga-ordainketan eragina duten datuak isilpean eduki beharra.**

1. Zerga Administrazioak bere eginkizunak egitean eskuratzen dituen datuak, txostenak edo aurrekariak isilpekoak dira eta hark kudeatzen dituen zergak edo baliabideak aplikatzeko eta bidezko zehapenak ezartzeko soilik erabili ahal izango dira, eta ezin zaizkie laga gainontzekoei, ez jakinarazi, [...].

- SALBUESPENAK: Aurreko puntuko paragrafoak zenbait salbuespenak aipatuz jarraitzen du:

[...] xede hauetako baterako izan ezean:

l) Herri administrazioei euren eginkizunetan laguntzea, zergapekoek euren datuak **horretarako laga daitezen baimena eman ondoren.**

d) Herri administrazioekin lankidetzan aritzea **Herri Ogasunaren eta Gizarte Segurantzaren aurkako delituak jazartzen** eta herri funtsen edo Europar Batasunaren funtsen kargurako **laguntzak edo diru-laguntzak lortu edo jasotzeko maularen aurkako borrokan.**

q) **Bizkaiko Foru Aldundiko gainerako administrazio organoek zergapekoen identifikazio datuak erabiltzea euren eginkizun publikoak betetzeko** eta Bizkaiko Foru Aldundiaren administrazio elektronikoko zerbitzuak behar bezala egiteko.

- KONKLUSIOA:

- Tributazio-datuekin lotuta, **arau orokor gisa, KONTSENTIMENDUA EDO BAIMENA BEHAR DA.**
- **DIRULAGUNTZA, LAGUNTZA, BEKA, PRESTAZIO EDO SARIEN kasuan, ez da beharrezkoa kontsentimendu edo baimenik jasotzea**, zeren Legeak gaitzen baitu (Zergei buruzko Foru Araua, 94.1.d art.) kontsentimendurik gabeko interoperabilitatea. Dena den, gomendatzen da oposizio-eza erabiltzea, beste zerbitzuekin homogeneizatzeko.
- BFAko organoek zergapekoen identifikazio-datuak erabili ahalko dituzte beren eginkizunak betetzeko.

- BESTE PUNTU INPORTANTE BAT: ZFAOk 94. artikuluko bigarren paragrafoan orobat adierazten du:

2. **Aurreko idatz-zatian ezarritako lagapenetan, zerga-informazioa baliabide informatiko edo telematikoen bidez eman behar da, ahal dela. Herri administrazioek informazioa bitarteko horiez baliatuta eskuratu ahal badituzte, ezin eskatu izango diete interesdunei informazioaren inguruko ziurtagiria, Zerga Administrazioak emana, aurkezteko.**

Ondorioz, Bizkaiko Foru Ogasunak ziurtagiriak emateari utzi ahalko dio interoperabilitate-zerbitzuak erabiltzeko prest daudenean.

## II. ERANSKINA: LAGUNTZAK, BEKAK ETA DIRULAGUNTZAK

Datozen lerrootan, aditzera ematen da zer tratamendu aplikatu behar den laguntzak, bekak eta dirulaguntzak izapidetze aldera kontsultatu beharreko informazio-zerbitzu nagusietan.

LAGATZAILEA	ZERBITZUA	GAIKUNTZA	TRATAMENDUA GAITZEN DUTEN LEGEAK
DGP	Nortasun-datuen kontsulta eta egiaztapena	Legea	39/2015 Legea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena (9. art.)
ERREGISTRO ZIBILA	Heriotzen datuak	Oposiziorik ez	39/2015 Legea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena (28.2. art.)
DGT	Ibilgailuen datuak	Oposiziorik ez	39/2015 Legea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena (28.2. art.)
GSIN	Gizarte Prestazio Publikoen Erregistroko prestazioak; aldi baterako ezintasuna eta amatasuna	Oposiziorik ez	39/2015 Legea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena (28.2. art.)
IGAE	Desgaikuntzen kontsulta	Oposiziorik ez	39/2015 Legea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena (28.2. art.)
	Jasotako dirulaguntzen jakinarazpena	Oposiziorik ez	39/2015 Legea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena (28.2. art.)
	Jasotako DE MINIMIS laguntzen jakinarazpena	Oposiziorik ez	39/2015 Legea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena (28.2. art.)
TGSS	Gizarte Segurantzarekiko paguekin egunean egotea	Oposiziorik ez	39/2015 Legea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena (28.2. art.)

ELKARRERAGINGARRITASUNA EZARTZEKO IRIZPIDEAK

LAGATZAILEA	ZERBITZUA	GAIKUNTZA	TRATAMENDUA GAITZEN DUTEN LEGEAK
Foru Aldundiak	Laguntza eta diru-laguntzetarako Zerga-betebeharrak egunean daudela egiaztatzeke zerbitzua	Oposiziorik ez*	Bizkaiko Zergei buruzko Foru Arau Orokorra (94.1.d)
	Errenta-maila: FPEZa, kontuen maila, ondasun higiezinak	Oposiziorik ez	39/2015 Legea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena (28.2. art.)
	Kontsultatu Ekonomia Jardueren gaineko Zergaren (IAE) epigrafeak	Oposiziorik ez	Zergei buruzko Foru Arau Orokorra: Araba / Gipuzkoa (92.1.d) / Bizkaia (94.1.d)  39/2015 Legea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena (28.2. art.)
EJ	Familia Ugariaren tituluak	Oposiziorik ez	39/2015 Legea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena (28.2. art.)
	Izatezko bikoteen erregistroan inskribatuta egotea	Oposiziorik ez	39/2015 Legea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena (28.2. art.)
LANBIDE	DSBEko diru-sarrerak	Oposiziorik ez	39/2015 Legea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena (28.2. art.)
UDALAK	Errolda	Oposiziorik ez	39/2015 Legea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena (28.2. art.)
ETXEBIDE	Etxebideren datuak	Oposiziorik ez	39/2015 Legea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena (28.2. art.)

\*Legediaren bitartez egin ahalko litzateke, dena den, beste zerbitzuekin homogeneizazio bat egoteko, oposizio eza egitea gomeni da.